



ATZERRIKO UNIBERTSITATEETAN EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA IRAKASTEKO PRESTAKUNTZA IKASTAROA(10. edizioa)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2023-2024

ARLOA: Humanitateak

KREDITUAK: 5,6 kreditu ECTS ⁽¹⁾

MATRIKULA TASA: 350,00 euro (eta aseguru, 4 €, galdetu)

ARDURADUN AKADEMIKOA: Garbiñe Iztueta eta Monika Madinabeitia

AURKEZPENA

Hasieratik, gure helburu nagusietako bat izan da atzerriko unibertsitateetan euskara nahiz euskal kultura irakatsiko duten irakasle edo irakurleak prestatzea. Horregatik, prestakuntza hau tokiko behar espezifikoetan pentsatuta diseinatu da.

Ikastaro hau UPV/EHUren eta Etxepare Euskal Institutuaren arteko lankidetzaren esparruan sortua da. Bi erakundearen arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzeak aukera ematen digu prestakuntza hori proposamen zehatzen bidez gauzatzeko.

Ikastaroan askotariko gaiak landuko dira: hizkuntzalaritza, didaktika, metodologia, kultura eta zibilizazioa, besteak beste.

Ikastaro honek alderdi hauek izango ditu ardatz:

- Identifikatzea euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntzan behar diren bide didaktiko eta metodologikoak atzerriko unibertsitateetan irakasteko.
- Ezagutzea ikasgelan eraginkortasunez jarduteko behar diren tresnak.

Ikastaroko saio gehienak modu presentzian emango dira, baina bakan batzuk online izango dira, egitarauan zehaztu bezala.

[Ikastaroaren programa](#) (pdf)

¹ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.



ZURE BILA GABILTZA

Giza Zientzietako goi-mailako graduatuei eta lizentziadunei bideratutakoa izango da, betiere hizkuntza-eskakizunak betetzen badituzte (EGA edo legezko titulazio baliokidea izatea). Hala ere, lekurik bada, Giza Zientzietako 4. mailako ikasleek eta beste lizentzia edo graduetako graduatu eta lizentziadunek ere egin ahal izango dute ikastaroa, honako lehentasun ordenaren arabera:

- Giza Zientzietako graduatuak
- Gizarte Zientzietako graduatuak
- Giza Zientzietako 4. mailako ikasleak
- Gizarte Zientzietako 4. mailako ikasleak
- Bestelako graduak

Parte-hartzaileen gehieneko kopurua 40koa izango da. Gutxienekoa, berriz, 33 lagunekoa.

IRAKASKETA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2023/10/06tik 2023/11/25era

EMATEKO TOKIA: ELBIRA ZIPITRIA eraikina. Euskal Herriko Unibertsitatea, Gipuzkoako Campusa. Ondarreta pasealekua 18. 20018 Donostia.

Ostiraletan: 16.00etatik 20.20ra (20 minutuko atsedenarekin).

Larunbatetan: 09.15etik 13.35era (20 minutuko atsedenarekin).

HIZKUNTZA: Euskara

INFORMAZIO BULEGOA

ORGANO PROPOSATZAILEA: Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazio

HELBIDEA: Letren Fakultatea. Unibertsitateko ibilbidea, 5 (Vitoria-Gasteiz)

HARREMANETARAKO:

Matrikularekin zerikusia duten gaiak:

(UPV/EHU), andres.sanchez@ehu.eus, 946 01 4805

Egitarauarekin zerikusia duten gaiak:

(ETXEPARE) k-galartza@etxepare.eus, 943 023 400



MATRIKULA

Matrikula on-line izango da. Izena emateko epea **uztailaren 3tik irailaren 20ra** izango da (biak barne).

Izena emateko orriarekin batera, honakoak aurkeztu beharko dira:

- NAN edo pasaportearen kopia
- Unibertsitateko tituluaren kopia
- EGA edo baliokidearen kopia

UPV/EHUn matrikulatuta ez dauden ikasleek ere ikasle-aseguru bat ordaindu beharko dute (4 €).

Ikasleek EHUKo araudiaren arabera hobariak izango dituzte, aldez aurretik eskatuta eta agiri bidez justifikatuta.

Irailaren 25ean argitaratuko da onartutako eta baztertutako pertsonen zerrenda, ezarritako lehentasunen arabera ordenatuta. Onartutako pertsonak irailaren **25etik urriaren 1era** arteko epea izango dute matrikularen zenbatekoa eta, hala badagokio, transferentzia bidezko aseguru ordaintzeko, transferentzia bidez:

- KUTXABANK: **ES88 2095 0292 9232 3900 8657**
- Kontzeptua: Ikaslearen izen-abizenak – EUSKARA IRAKASTEKO IKASTAROA

Epe hori igarota ordainketarik egin ez duenak ikastaroa egiteko eskubidea galduko du eta zerrendaren hurrenkeran onartuko dira ordezkioak.

ATZERRIKO UNIBERTSITATEETAN EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA IRAKASTEKO PRESTAKUNTZA IKASTAROA

Ostiraletan: 16.00etatik 20.20ra (20 minutuko atsedenaekin).

Larunbatetan: 09.15etik 13.35era (20 minutuko atsedenaekin).

Donostiako Campusa, ELBIRA ZIPITRIA eraikina. Ondarreta pasealekua, 18 (gela zehazteke)– 20018 DONOSTIA

1. astea

Urriak 6

15:00

Garbiñe Iztueta (EHU/UPV) / Monika Madinabeitia (Etxepare Euskal Institutua)

Etxepare Euskal Institutuaren irakurletza sarearen aurkezpena.

Ikastaroaren helburua eta atalak (teoria/praktika, kultura/hizkuntza).

LEHEN MULTZOA: HIZKUNTZA

16:00

Unai Lauzirika (4 ordu)

Irakurle baten eguneroko jarduna

Urriak 7

Ibon Manterola (4 ordu)

Hizkuntzak ikasteko jarrera eta motibazioak

2. astea

Urriak 20

Ana Labaka (HABE) (2 ordu)

Helduen euskalduntzearen oinarrizko curriculumaren gida-lerroak

Unai Zaballa (2 ordu)

Irakurletza batean euskara irakasteko proposamen praktikoa

Urriak 21

Cecilia Fernandez (4 ordu)

Deabruari euskaraz irakasten: euskara beste hizkuntzekin alderatuz ikas dezakeguna.

3. astea

Urriak 27

Kinku Zinkunegi (4 ordu)

Ahozko eta idatzizko lanen ebaluazioa atzerrian: saio praktikoa

Urriak 28

Mikel Iruskietia (4 ordu)
Euskararen irakaskuntza testuinguru digitalean: IKTak eta hizkuntza-teknologia

BIGARREN MULTZOA: KULTURA

4. astea

Azaroak 3

Ismael Manterola (4 ordu)
Baloreen transmisioa Euskal Herriko artean.

Azaroak 4

Haritz Azurmendi (4 ordu)
Euskal pentsamendua

5. astea:

Azaroak 10

Mari Jose Olaziregi (4 ordu)
Euskal literatura, ikasketa kulturalen ikuspuntutik.

Azaroak 11

Olatz Altuna (2 ordu)
Hizkuntza eta gizartea euskararen atzerriko irakaskuntzan

Beñat Muguruza (2 ordu)
Euskara eta hi

6. astea

Azaroak 17

Nekane Goikoetxea (2 ordu)
Euskal iruditeria, aieru franko

Gema Lasarte (2 ordu)
Euskal literatur testuak genero begiradatik irakurtzen

Azaroak 18 (ONLINE)

Jone Miren Hernandez (2 ordu)
Txapelatik gobarara. Emakumeak, feminismoa eta genero ikasketak azkenengo hiru hamarkadetan.

Oscar Alvarez Gila (2 ordu)
Euskal emigrazioa eta diaspora

7. astea

Azaroak 24

Miren Ibarluzea (2 ordu)

Bertsolaritza / What is bertsolaritza? Eskoletan

Oier Araolaza (2 ordu)

Euskal dantza

Azaroak 25

Monika Madinabeitia

Proiektu pedagogikoa nola landu (2 ordu)

Irakurletza batean lehen urratsak (2 ordu)